Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko azaroaren 8an egindako tailerraren akta

Gaur betaurrekoak jarri eta herriko irisgarritasuna aztertu dugu, Legazpiren beste ikuspegi bat izateko

1. *Erronka argia da*

Joan den urriaren 4ko tailerrean esan genuena ekarriko dugu gogora:

> << Foroarekin batera, oinezkoen egungo ibilbide nagusietako eta, oro har, Legazpiko auzoetako irisgarritasuna eta adeitasuna aztertu nahi dugu. Ezaguera eta eduki hori baliagarria izango da mugikortasun-plana eta irisgarritasun-plana eguneratzeko eta, hori egitearekin batera, Legazpiko espazio publikoak hobetzea lortuko dugu.". >>

Hasteko, Legazpi sei zonaldetan banatu genuen eta, azkeneko hilabete honetan, Foroko kideak zonalde horiek aztertu dituzte.



Hau da, gure gonbidapen-eskaera onartu duzuenok zonalde horiek aztertu dituzue eta zenbait kontu identifikatu dituzue:

- Legazpiko kaleetan eta auzoetan irisgarritasuna zailtzen duten **puntu beltzak** aurkitu dituzue.
- Eta kide batzuk ondo eginda dauden gauzak ere jaso nahi izan duzue eta udalerrian oinezkoentzako eta mugikortasun urria duten pertsonentzako herri atseginagoa lortzeko ongi egindakoak ekarri dituzue.

2. Eta zer esan dezakegu? Helburua bete duzuela, nola ez!

Beraz, gaur ekarri dituzuen oharrak, argazkiak,…. guztiei aurkezteko ordua iritsi da. Egin dugun **bateratze-lanak** Legazpiko hainbat puntu identifikatzen lagundu digu.

… irisgarritasuna hobetu beharreko puntuak identifikatu dituzue.

… eta, bestalde, oinezkoentzako eta mugikortasun urria duten pertsonentzako eredu ona diren lekuak azpimarratu dituzue.

Eta, batez ere, bagenekien gauzatxo bat berretsi digu: **talde indartsua dugula**. Taldeak lanerako ahalmena duela, Legazpiren alde lan egiteko gogoa duela eta iraunkortasunarekiko konpromisoa duela. Azken finean, Legazpiko Agenda 21eko Foroa eta Foro hori osatzen duzuenok, **apartak zaretela!**

Horregatik, gaur inoiz baino gehiago, eskerrik asko taldeari eta pertsona bakoitzari, izenez eta abizenez, zuen konpromisoarekin gune hau elikatu eta aberastu egiten duzuelako. Mila, mila esker!

Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Arantza Arizmendi (zinegotzia) • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Mila Adurriaga (Garagune) • Asun Jauregi (Garagune) • Nerea Sanchez (Atzegi) • Sole Vega Rodrigo (Garagune) • Junkal Fernandez • Lurdes Etxaniz • Maite Berasategi • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Manuel Fernandez (Nagusilan) • Feli Nuñez • Pilar Makibar • Maite Odriozola (Haztegi ikastola) • Mª Cruz Lizarazu • Juan Carlos Agirre • Igor Urrate (zinegotzia) • Ane Mendinueta (udal arkitektoa) • Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea).

3. Informazio garrantzitsua! Legazpiko irisgarritasunaren azterketaren emaitzak

Legazpiko Agenda 21eko Foroak banaka eta taldeka egin duen lanaren ondoren, irisgarritasunaren ikuspegitik zeintzuk dira udalerrian dauden puntu beltzak? Eta, aldiz, zeintzuk dira ongi egindakoak?[1]

Jarraian, udalerriko kaleak eta auzoak banatu ditugun **sei zonaldetarako taldeek eman dituzten datu zehatzak** jasoko ditugu.

Has gaitezen!

[1] Foroko kideek ekarri duten jatorrizko dokumentazioa (oharrak, argazkiak…) Legazpiko Udaleko Agenda 21 eta iraunkortasuneko departamentuan gorde da.

1. zonaldea. Bikuña-kiroldegia

Planoko testua	Antzemandako **puntu beltzak edo hobetzekoak**
1	Bidegorria falta da
2	Grafitiak
3	Espaloia jaitsi behar da
4	Espaloia jaitsi behar da
5	Asfaltoa hondatuta dago
6	Bidegurutze arriskutsua
7	Galtzadako lauzak egoera txarrean daude
8	Espaloia jaitsi behar da
9	Espaloia jaitsi behar da
10	Toki hauetan zabortegi antzekoak daude
Planoko testua	**Antzemandako puntu onargarriak edo egokiak**
	Plazaola, Santikutz, ikastola, Kultur Etxetik Juanastegira igotzeko bidea, Bikuña parkea
Planoko testua	**Hobetzeko iradokizunak**
	Zuhaitz txiki bat landatu eta paretan grafitiak egin
	Mirandaola eta Korta baserri bitartean komunak jarri

2. zonaldea. Plazaola

Planoko testua	Antzemandako **puntu beltzak edo hobetzekoak**
	Geltoki ondoko etxe parean, pibotarekin edo argiarekin bidegorria non hasten den adierazi
	Txomineko pasabidea, ¿trabarik gabekoa?
	Plazaolako espaloia
	Aizkorri kalean, Garagune dagoen lekuan, amaitu egiten da espaloia
	Botika parean, espaloia jaitsi gabe dago
	Postetxe pareko espaloia estua da
	Txorronearen eta etxe berriaren artean zorua labainkorra da
	Apatxo-Elizondo-BBVA, espaloiak jaitsi gabe daude
	Rural kutxa, trabak bertara iristeko
	Mauleon hotelaren ingurua, estua
	Markesinara iristeko aukerak hobetu
Planoko testua	**Antzemandako puntu onargarriak edo egokiak**
	Futbolzelaiko errotonda
	Erreka pareko pasealekua, ongi argituta

	Garagune pareko ingurua zabala da eta aterpea dago
	Kale zahar atsegina eta lasaia
	Plazaren zonaldea egokia eta atsegina
	Plazaola, inguru atsegina
Planoko testua	Hobetzeko **iradokizunak**
	Pipican
	Parke parean dauden eserlekuak espaloian edo aterpean
	Udaletxearen inguruan dauden berdeguneak hobetu
Planoko testua	Antzemandako **beste puntu beltz batzuk edo hobetzekoak**
	Kale Nagusia: zarata handia eta autoen abiadura
	Espazio estua

Aztertu den zonalde honi dagokionez, esan behar dugu Garagunek aurkeztu duen txosten zehatza jaso dugula. Pozgarria izan da zuen ikuspegia jasotzea!
Eskerrik asko!

Fundación Goyeneche de San Sebastián

FORO AGENDA 21



3. zonaldea. Hirigunea



Planoko testua	Antzemandako **puntu beltzak edo hobetzekoak: hiri-altzariak**
	Santikutz egoitzaren pareak eserlekuak falta dira
	Igogailuaren parean eserlekua (maisuaren etxearen alboan)
	Gizarte-zentroaren sarreran eserlekua (Kultur etxeko fatxadaren parean)
	Latxartegi parkeko altzariak berritu beharrean daude (eserlekuak, zuhaitzak...). Metalezko eserlekuak jartzea proposatu da
	Kultur etxearen atzealdean eserlekua jarri; Itxaropen/Juanastegira igotzeko bidean
Planoko testua	**Antzemandako puntu beltzak edo hobetzekoak: irisgarritasuna**
	Irisgarritasunaren ikuspegitik zailtasunak dituzten eskailerak, ilun samarrak…
	Ostatu pareko zintarria
	San Ignazio aldapako zintarria (egoitza pareko aldapa)
	Mirasol etxe pareko zintarria
	Fenoll botika pareko zintarria

Planoko testua	Antzemandako **puntu beltzak edo hobetzekoak: bidegurutzeak**
	Muruko errotonda
	Bikuñako errotonda
	Laubideko errotonda
Planoko testua	**Antzemandako puntu beltzak edo hobetzekoak: aparkaleku ez egokiak**
	Arantzazuko haur txikien eskola pareko aparkalekua
Planoko testua	**Antzemandako puntu beltzak edo hobetzekoak: egoera txarrean dauden espaloiak**
	Arantzazuko haur txikien eskola pareko aparkalekua
	Arantzazuko botikara joateko ez dago espaloirik
Planoko testua	**Antzemandako beste puntu beltz batzuk edo hobetzekoak**
	Latxartegin fruta-denda parean dagoen zebrabidean goragunea falta da
	San Ignazioko aldapan Juanastegi kalera joateko dagoen zebrabidean goragunea falta da
	Arantzazu eta San Jose auzoen artean espaloiak falta dira
	Laubide auzora igotzeko dagoen aldapako zebrabideak ez daude egokituta

4. zonaldea.

Planoko testua	
●	Espaloiak falta dira (Txirbil Elkartea, San Ignazio 44)
●	Espaloi estuak; oztopoekin edo jaitsierarik gabe
■	Eskailerak hobetu edo barandak jarri bi aldetan
■	Espaloi labainkorra
■	Oso ondo dauden puntuak
Bestelako ekarpenak	Oro har, neguan espaloiak oso labainkorrak dira
	Zein da institutura joateko ibilbide ofiziala? (istripuetarako in itinere)
	Institutura doan bidea oztopoz Beteta dago: espaloiak, espaloirik gabeko guneak…
	Juanastegi kaleko pasealekua egokia da

OHARRA: 4. zonaldeari dagokionez, planoan jasota geratu diren puntu bakoitzaren argazkiak Legazpiko Udalaren Agenda 21 eta Iraunkortasun sailaren esku geratuko dira.

5. zonaldea. Industrialdea

Puntu beltzak edo hobetzeko lehenetasuna dutenak	4. puntua	Industrialdean ez daude espaloiak eta markatu gabe daude oinezkoentzako bideak. Kontuan hartu behar dugu zonalde horretan beilatokia dagoela.
		Paretaren eta errepidearen arteko pasabidea ez da oso atsegina
	5. puntua	BM supermerkatuaren parean dagoen haur parkea eta La Salle kaleko espaloia: - BM pareko parkean ez daude zaborra gaika jasotzeko zakarrontziak - Parkean dagoen ekipamendua haur handiagoentzako da
	6. puntua	Ezinbestekoa da La Salle kaleko espaloia egokitzea
	Lehentasunezkoa da Urola kalea egokitzea	
	Lehentasunezkoa da Zaldu ingurua txukuntzea	

6. zonaldea.



Puntu beltzak edo hobetzeko lehenetasuna dutenak	7. puntua	Urtatzeko iturria txukundu beharra; batzuk Gureak tailerrera oinez joaten dira
	8. puntua	Etxe berriak daude, jaitsierarik gabeko espaloiak, zaindu gabeko hiri-altzariak…
	9. puntua	San Juan auzoa, jaitsierarik gabeko espaloiak
	10. puntua	Urtatza: bide estua, jaitsierarik gabeko espaloiak, hiri-altzariak falta dira
	11. puntua	Baranda edo eskudela
	12. puntua	Eroski pareko Junetorri autobusaren geralekua txukundu
	13. puntua	Laubideko errotonda konpondu

3. Lehentasunak

Taldeka egin den zonaldekako azterketa zehatzaren ondoren, bateratze-lana egin aurretik azkeneko gauzatxo bat egitea eskatu diogu taldeari:

- Zonalde bakoitzean identifikatu dena ikustita, eta gaur egun bizi dugun testuinguru sozio-ekonomikoa aintzat hartuta, **3 jarduera lehenetsi beharko bagenitu, -berehala konpondu beharreko 3 puntu-, zeintzuk izango lirateke horiek?**

Taldea ados dago eta Udalak esandakoak jaso ditu!:

	Lehentasunak irisgarritasuna hobetzeko:
Udalerrian	• Udalerri osoan zehar 30. Area ezartzea • Zoladura-lauzak aztertzea (oraingoa irristakorra da)
1. zonaldea	• Bikuña-kiroldegiaren eta gasolindegiaren artean espaloiak jaistea
	• Txorroneako bidegurutzeari irtenbidea ematea
2. zonaldea	• Aizkorri kalean autobusaren marquesina egokitzea
	• Aizkorri-Apatxo zonalde osoa egokitzea: oinezkoen pasabideak, espaloia zabaltzea…
	• Taxien geltokian eta Rural kutxa zonaldea egokitzea eta espaloiak jaistea
3. zonaldea	• Arantzazu auzoan, eskolaurrea dagoen zonaldean, espaloi eta aparkaleku ezaren arazoa konpontzea (autoak espaloien gainean)
	• Muruko bidegurutzea konpontzea
	• Laubideko bidegurutzea konpontzea (atzealdea)
4. zonaldea	• San Martin eta San Ignazio, espaloi denak egokitzea (jaitsierak)
	• Olazabal-Centro Extremeño-Txirbil zonaldean espaloia egitea… Jende asko dabil oinez.
	• San Ignazio auzotik Laubideko haur-parkera doazen eskailerak: arrapala kentzea eta alde bietan baranda jartzea
	• Aiztonagako espaloia, gaztetxeko aldapan: zoladura irristakorra konpondu beharra.
5. zonaldea	• Industrialdeko zonalde osoa egokitzea: espaloiak jaistea eta trafikoa eta aparkalekuak antolatzea, beilatokira joango diren oinezkoen segurtasuna bermatzeko.
	• Industrialdetik Zumarragara doan bidegorriaren hasierara doazen espaloiak eta pasabideak egokitzea
	• BM pareko haur-parkean zaborra gaika jasotzeko zakarrontziak jartzea eta La Salle kalean oinezkoen pasabideak jaistea.

	Lehentasunak irisgarritasuna hobetzeko:
6. zonaldea	• Urtatzako iturria, txukundu: iristeko bideak, autobus-markesinak, garbiketa… Jende asko dabilen zonaldea da eta Gureak tailerrak ere bertan daude
	• Urtatzatik jaisteko bidea estua da Goierri parean. Gauza bera gertatzen zen Gure Kabia taberna parean eta alde batean aparkatuta zeuden autoak kenduta konpondu zen.
	• San Juan auzora igotzeko bidea: ezkerraldea txukun dago baina errotondatik gora ezin da igo, espaloia bukatu egiten da eta ez du jarraitzen

Lan bikaina! Gaur Foroak 10eko nota jaso du!

4. Tailerra Legazpik jaso duen sari berri batekin amaitzen dugu

Talde-lanak eta elkarrekin egindako lanak saria jaso du!

Izan ere, "10 urte Erreka eguna ospatzen" ekimenak **Iraunkortasunerako jardunbide onenen Udalsarea 21 sarietako bat jaso du**, Iraunkortasuna bultzatzeko heziketa kategorian[2].

Horrela, geurea egiten dugu udaletxeko Agenda 21eko teknikari Inma Hernandezek Foroarekin partekatu duen balorazioa :

<< Zorioneko gaude. Sari berri bat jaso dugu iraunkortasun gaietan –gogoan izan joan den ekainean Urrezko tak21 saria jaso genuela–.

Sariak jasotzea erraza dela dirudi, baina ez da horrela. Sari horietako bakoitzaren atzealdean talde-lan handia dago.

Kasu honetan Erreka Eguna, adibidez. Berez, ez da ekimen "berri" bat eta hori horrela izanda, zergatik saritu dutela uste dugu? Ekimen horren ibilbideari erreparatu behar diogu –datorren urtean 10 urte beteko dira erreka eguna ospatzen dugula–. Horrezaz gain, udalerrian errotutako eta helburu berarekin jende mota eta adin desberdinekoa elkartzea lortu duen ekimena da. Horiek izan dira saria jasotzearen arrazoiak. >>

[2] Informazio gehiago: http://www.udalsarea21.net/paginas/ficha.aspx?IdMenu=0a484c98-c4cd-4dc9-ae9b-e59fcc6f9b1f

Eta bukatzeko, jaso dugun sari hau **azkeneko 9 urte hauetan Erreka Eguna posible egin duten** persona guztiekin partekatu nahi dugu.

Ederra izan da gaurko tailerra, eskerrik asko!
Mila, mila esker guztioi!!!